



Dantza Pote

Ez ohiko espazioak

ARGAZKIA | Iñaki Alforja



+7 URTE



BEHARRAK | Taberna-zerrenda eta planoak



TABERNA, TERRAZA



7' TABERNA BAKOITZEKO

Bideoak

- [Vimeo](#)

“Tabernaz taberna, dantza garaikideaz gozatzeko aukera izugarria da, hurbila eta konplizea.

Zazpi minutuero, DantzaPote pasatzen den taberna bakoitzeko giroa aldatzen du apurka, antzoki baten arreta eta kontzentrazioa lortu arte. Taberna bakoitzean, ezustean, dantzariak dantzan hasten dira, jendearekin nahasturik. Haien musika eramaten dute haiekin, erabat autonomoak dira. Zurekin eserita izan daitezke, edo zure ondoan kokaturik... eta dantzan hasiko dira!

Dantzas gozatu DANTZAZen dantzariekin”

PRENTSAK DIO...

“Dantzaren hizkuntza iruindarrenganatu zen atzo, hirirako erabat berria zen Dantza Poteren bitartez. “Juevintxo”ek duten giroarekin nahastu zen, eta alde zaharreko biztanle eta ibiltariak harriturik utzi zituen.

Iruñeko antzokiko inguruetan (...) Dantza Pote egitasmorako eskenatokia izan ziren, eta zonaldeko tabernetako barrukalde eta kanpokaldean egin zen, bertan zirenen kuriositatea piztuz.

Konpainiaren esanetan, Dantza Potearekin (...) antzokiei tresnak eman nahi dizkiete, dantza zabaltzeko eta publiko gehiago lortzeko. Gaur inoiz baino indar gehiagorekin antzokitik atera behar gara dantzak behar duen publikoaren bila. Beraz, Dantza Potearen erronka hauxe da: tabernak antzoki bihurtu une laburrez, (...) antzokietan ematen den arreta eta isiltasuna lortuz.

Dantzariak koreografi batzuen zatiak dantzatu zituzten tabernetan (...) oso musika eta instrumentazio ezberdinak erabiliz, ibiltari eta bezeroei dantza piezak eskaini zituzten: perkusion, txalaparta, John Cageren pianoa, viola de gamba, beti inprobisaziorako tarteak utziz, edozein kaleko ekintzak behar duena, non artistek uneko giroarekin aberasten dira.”

P. Echeverría, Noticias de Navarra, 2014ko maiatza